

# OGI TXIGOR PRESTATZAILEA

FUNTSEZKO ELKARTEAK



• **Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan? Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?**

Negozio-eredu jakin batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkide sarea da. Enpresa batek aliantzak sor ditzake beste enpresa batzuekin hainbat arrazoi direla medio: negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko, hain zuzen ere. Negozio-ereduak optimizatzen kostuak murriztu, azpikontratuak sortu eta azpiegiturak konpartitzen dira. Gainera, arriskuak murriztean ziurgabetasuna gutxitzen da eta horretaz gain, arrisku ekonomiko oso urria dago. Bestalde, baliabide espezifikoak izango ziren. Hau da, aliantza egin arren produktu bakoitzak bere baliabide espezifikoaren beharra du. Gainera ezagutza batzuk lortu beharko genuen, edo gure proiektua nola egiten dakien enpresaren bat. Teknologian zein diseinuan ezagutza jakin bat duena. Produktua saltzeko orduan, lizentzia bat eskatu behar da. Lizentzia hori ordaindu egin behar da eta produktuaren prezioan eragina izango du. Izan ere, aliantzaren ondorioz, beste enpresen bezeroak gureak izatea ere ahalbidetzen du. Hau da, bezero fijo batzuk egongo dira. Hala ere, bezero gehiago lortu beharko dira eta hori marketing edo azokak erabiliz lor daiteke. Adibidez, gure proiektuaren kasuan *Bimbo* markarekin edo *Nutella* egiten duen enpresarekin aliantzak sortu ezkeren beraien publizitatean parte hartzeko aukera izango genuke. Horrela, bezero berriak lortuz. Baina aliantza egiteak ere bere alde txarrak ditu, etekinak bi enpresen edo aliantza egiten duten enpresen artean banatu beharko direlako. Beraz, irabazi gutxiago izango ditu gure enpresak.